# 1907

## Rivera eta Chicharro, Chicharro eta Rivera Lekeition



Diego Rivera da –Frida Kahloren baimenarekin- Mexikok eman duen artistarik nagusiena, behintzat entzutetsuena. Bera eta haren maisu zen Eduardo Chicharro 1907ko udan etorri ziren Lekeitiora. Zergatik aukeratu zuten Lekeitio? Chicharrok Madrazotarrak eta Tellaeche ezagutzen zituelako?

Hori eta gehiago jakiteko Kurik 3an duzue Mikel Onandia Garatek idatzitako Diego Rivera Lekeition artikulua. Hoberik ez duzue aurkituko!





Goitik behera eta ezkerretik eskumara: *La parte de Pedro, La Casona, Cuando los remos descansan, En Vasconia, Iglesia de Lekeitio* edo *Piedra vieja y flores, Lekeitio,* izenik gabea Beheko eta Tenderia artekoa eta *Costa Cantábrica.* Diego Rivera, 1907





Kurik III








*Mujer con cesto*, Eduardo Chicharro, 1907







*Vista de Lekeitio*, Eduardo Chicharro, 1907

Lekeitiar karneta atera nahi duenak derrigorrez jakin behar dituen erantzunen artean dago gaur egungo Ezpeleta kalea Txitxarro kalea izan zela. XIX. mendeko udal aktetan behin eta berriro deituko zaio Chicharro calle Arranegi kaleko amaiera, errebal horri[1]. XX. mende hasieran jarri zioten Ezpeleta izena[2]. Harrigarria da, ehun eta piko urte beranduago lekeitiarrek Txitxarro kale deitzea kale horri, gogoratzea! Eta zer *enbarkako* guk Sarean? Chicharro pintorea Txitxarro kalea pintatzen!

1 Ez dirudi Chicharro izen horrek ere mende ugari dituenik, behintzat guk dokumentazioan, notarialak ez du hutsik egiten, ez dugu XIX mendea baino lehenago ikusi kale hori hala izendatuta, Arranegui, barrio de Arranegui izena erabiltzen zen, baina XIX. mende guztian zehar –sarritan gainera- erabili zen Chicharro cale izena Udal aktetan. 1793koa da aurkitu dugun aipamenik zaharrena, (1793-1-5): “venta formal de dos partes y porciones que les correspondian en una media casa del varrio de Chicharro-cale de esta villa...”.
Auzo umila zen, LUA/Udal aktak, 5-10-1800: “Haviendo obserbado pues, una extraordinaria inmundicia en algunas calles de esta villa y especialmente las llamadas Chicharro-cale y Beascocalea, como tambien en las entradas de la poblacion...”.

2 LUA/Udal aktak, 23-1-1904: “El alcalde hizo presente que la Villa de Lequeitio y principalmente la Cofradía de Mareantes, eran deudores hacia el finado Don José María de Ezpeleta por lo mucho que durante el tiempo que fué Alcalde de la Villa y presidente de aquella Cofradía, se interesó en beneficio de una y otra; y para perpetuar de algún modo y hacer público el reconocimiento del Ayuntamiento hacia de dicho Señor, proponía se diese a la actual calle del Puerto el nombre de “calle de Ezpeleta” por ser esta calle, habitada casi en su totalidad por la clase pescadora, la más apropiada para recibir el nombre de aquel que tanto se intereso en favor de esta clase. El Ayuntamiento, identificado con el parecer del Señor Alcalde, acordó conforme á lo propuesto”.